

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## la ehun erakunde ari dira koloneko eta ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarraren programa hedatzen

*Iruñerriko Mankomunitateak hiriko autobusetan 2.000 liburuxka informatibo eseki ditu biztanleak halako tumoreak garaiz diagnostikatzea ahalbidetzen duen proba egitera animatzeko.*

Lunes, 10 de marzo de 2014

[92 enpresa, erakunde eta elkarte](#) ari dira kolon eta ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarraren programa zabaltzen Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, biztanleei kolon eta ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarraren programan parte hartzeak duen garrantziaz kontzientziatzeko. Programa 50 eta 69 urte arteko 166.000 nafarrei dago zuzenduta .

Erakunde horien egoitza eta lan-zentroetan kolon eta ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarrari buruzko kartelak eta liburuxka informatiboak banatuta, programari atxikitako erakundeen modu aktiboan parte hartzen dute, prebentzio-programan ahalik eta jende gehienak parte har dezan. Programan parte hartzeko, etxean proba erraz bat egin daiteke hasierako fasean dauden tumorerik badagoen ala ez detektatzeko. Horri esker, kasuen % 90 senda daiteke.

Kanpainan parte hartu nahi duten enpresa, erakunde, organismo edo taldeek [www.cancercolon.navarra.es](http://www.cancercolon.navarra.es) webgubera jo dezakete eta, bertan, "atxikitzeak" atalean sartu. [Informatzeko materiala](#) eta enpresen eta erakundeen barneko aldizkari eta argitalpenetarako logotipo eta irudiak eskuratu ahal izango dituzte, Nafarroako gizartean programa zabaltzen laguntzeko.

### Liburuxka informatiboak esekita hiri-autobusetan

Kanpainaren barruan, Iruñerriko Mankomunitateak, Transports Ciutat Condal enpresarekin batera (Eskualdeko Hiri Garraioaren emakidaduna),



kolon eta ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarraren programa zabaltzeko, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan hasi du autobusetan programari buruzko azalpenak ematen dituzten 2.000 liburuxka esekita. Datozen bi asteetan, hiri-autobusen erabiltzaileak izango dira biztanleei helarazi nahi zaizkien honako bi ideia hauen hartzaileak: kolon eta ondesteko minbizia ehunetik 90 kasutan senda daitekeela garaiz detektatuz gero eta, horretarako, etxean proba erraz bat egin daitekeela.

Beraz, Iruñerriko Mankomunitatea, hainbat jarduera gauzatu, kolon eta ondesteko minbizia prebenitzeko kanpainaren hedapenean parte hartu duen beste erakunde bat izango da. Orain arte, "la Caixa" Gizarte Ekintza, El Corte Inglés, Laboratorios Cinfa, eta Nafarroako RNE, COPE, SER eta Onda Cero irrati-etxeek hartu dute parte.

### **Atxikitako erakundeak**

Jarraian, kanpainari atxikitako erakunde, enpresa eta taldeak zerrendatzen dira:

**Tokiko erakundeak eta organismo ofizialak:** Burlatako Udala; Los Arcosko Udala; Atarrabiako Udala; Iruñerriko Mankomunitatea; Andosillako, Azagrako, Carcarko eta San Adriango Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea; San Francisco Javier Zahar Etxearen Mankomunitatea; Nafarroako Erriberagoiengo Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea; Azkoién Aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea; Nafarroako Lurraldeko Justizia Kudeatzailtza Iruñean.

**Elkartek, fundazioa, kooperatibak eta kirol-erakundeak:** Nafarroako Industriaren Elkarte; Nafarroako Ostalaritzako Enpresarien Elkarte; Anasaps; Nafarroako Ostalaritza Elkarte; Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofiziala; Nafarroako Saltokien Federazioa; Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioa; Argibide fundazioa; Donibane Kirol Elkarte; Club Tenis Pamplona; Gesport Gestión Deportiva; Cooperativa Agrícola San Isidro.

**Enpresak:** 20&02 Otero & Ollo Comunicación; Ananda Gestión ETT; Ansme; Arpa Abogados y Consultores; Auto Escuela Plaza; Bar Baviera; Bertako; Cadena COPE; Cadena SER; Cafenasa; Comensvi; Comercial Archueta; Comercial Gazpi; Construcciones Merino Arregui; Coposa; Distribuciones Cuadrado; El Corte Inglés; Electricidad Bat Vol; Electronica Selco; Esgasalux; Eskubide; Eurovidrio; Fagor Ederlan Tafalla; Farmacia Cristina Cabiró; Fideltronic; Fimar Autoservicio; Flexngate Navarra; Floristeria Acacia; Frilac; Gap'S Comunicación; Gkn Ayra Servicio; Gorvi; Grupo Ian; Grupo La Información; Grupotem ETT; Hotel Eslava; Industrial Tonelera Navarra; Industrias Cirauqui; Ingeteam Power Technology; Inverprao Flores y Plantas; Iruñempleo; Jatorman; La Estellesa; Laboratorios Cinfa; Leroy Merlin; Limpiezas y Servicios Maju; Magotteaux; Mecanizados Alsasua; Mercado de Ermitagaña; Mercadona; M. Etxenike; Molinero Cozar; Muebles Rey; Neumaticos Lagun S.L; 'la Caixa' Gizarte Ekintza; Onda Cero; Parque de la Naturaleza de Navarra; Pienso Artoa; Pradesol; Prefabricaciones y Contratas Sau; Rpc Superfos; Repuestos Gali Turismo; Residencia San Jerónimo; Resitex; RNE; Trw Automotive.

### **Dagoeneko 16.164 pertsona deitu dira programan parte hartzera**

Kolon eta ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarraren programa iragan azaroan jarri zen abian, Tuteran-Mendebaldean oinarrizko osasun-barrutikoan. Orduan, Lizarran eta Iruñeko Donibane eta Milagrosa auzoetan ere ezarri da. Dagoeneko 16.164 pertsona barne hartu dira deialdian, prebentzio-planaren hartzaile diren 166.000 nafarren % 10 gutxi gorabehera.

Detekzio goiztiarraren programaren bidez, kolon eta ondesteko minbiziaren intzidentzia eta hilkortasuna murriztu nahi dira, biztanleen artean minbizia ohikoena baita. Nafarroako emakumeen artean heriotza gehien eragiten dituen minbizia da, eta, gizonen kasuan, heriotza eragiten duten arrazoen artean bigarrena da, biriketako eta trakeakoaren ostean. Garaiz diagnostikatzen bada, gaixotasuna sendatu egin daiteke.